

**ZELADOREAK  
EUSKARAZ**

**CELADORES  
EN EUSKERA**



**Argitaratzailea / Edita:** Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra  
**Egileak / Autores:** Osasunbidea, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua,  
Elhuyar Aholkularitza.

**Diseinua / Diseño:** [cobo-munarriz.com](http://cobo-munarriz.com)  
**L.G./D.L.:** NA 1864-2022

**Edizioa / Edición:** 2024

**ZELADOREAK EUSKARAZ**

**CELADORES EN EUSKERA**




# AURKIBIDEA

# ÍNDICE

<b>1. SARRERA</b>	<b>INTRODUCCIÓN</b>	<b>4</b>
<b>2. ELKARRIZKETAK</b>	<b>CONVERSACIONES</b>	<b>6</b>
<b>2.1. Kortetsiazko adierazpenak</b>	<b>Expresiones de cortesía</b>	
Datu pertsonalak eskatzea	Solicitud de datos personales	7
<b>2.2. Zeladoreen ekintza komunikatiborik ohikoenen adibideak</b>	<b>Ejemplos de acciones comunicativas más habituales en celadores</b>	
Agurra eta lehen hitzak pazienteekin	Saludo y primeras palabras con los y las pacientes	8
Pazientea ospitaleratu	Hospitalización del paciente	10
Pazientea tarteko unitate batera eraman edo lagundu: ebakuntza-gelara, proba osagarrietara, errehabilitaziora, kontsultara	Trasladar o acompañar al paciente a una unidad intermedia: quirófano, pruebas complementarias, rehabilitación, consulta	12
Pazientearekin tarteko unitatean: ebakuntza-gelan, proba osagarrietan, errehabilitazioan, kontsultan	Con el paciente en la unidad intermedia: quirófano, pruebas complementarias, rehabilitación, consulta...	15
Pazientearekin tarteko unitatetik hasierako unitatera itzuli	Volver con el paciente de la unidad intermedia a la unidad inicial	18
Ospitalizatutako pazienteei posizioz aldatzen lagundu	Ayudar a los pacientes hospitalizados a cambiar de posición	20
Ospitalizatutako pazientea gelaz aldatu	Cambiar de habitación al paciente hospitalizado	22
Etixeratu behar duen pazientearekin ambulantiara edo kalera joan	Ayudar al paciente a salir del hospital (a la ambulancia o a la calle)	24
Zeladoreen ohiko beste ekintza komunikatibo batzuk	Otras acciones comunicativas habituales en celadores	26
<b>3. OINARRIZKO HIZTEGIA</b>	<b>DICCIONARIO BÁSICO</b>	<b>31</b>
<b>3.1. Zerbitzuak</b>	Servicios	33
<b>3.2. Ohiko gaixotasunak</b>	Enfermedades frecuentes	34
<b>3.3. Gorputz-atalak</b>	Partes del cuerpo	36
<b>3.4. Gorputz-organoak</b>	Órganos del cuerpo	37
<b>3.5. Eskeletoa</b>	Esqueleto	37
<b>3.6. Probak / analisiak / ebakuntzak</b>	Pruebas / análisis / operaciones	38
<b>4. HIZTEGI ESPEZIFIKOA</b>	<b>DICCIONARIO ESPECÍFICO</b>	<b>40</b>
<b>4.1. Laneko hiztegia</b>	Diccionario de trabajo	41
<b>4.2. Gorputz-atalak</b>	Partes del cuerpo	43
<b>4.3. Gorputz-organoak</b>	Órganos del cuerpo	44
<b>4.4. Eskeletoa</b>	Esqueleto	45
<b>5. MATERIAL LAGUNGARRIA</b>	<b>MATERIAL DE AYUDA</b>	<b>46</b>

1



# 1. SARRERA

Gida hau Nafarroako Osasun Departamentuaren Hizkuntza Planaren baitan landutako materiala da eta Departamentuko profesionalei euskaraz lan egiteko erraztasunak ematea du helburu.

Euskararen ezagutzak gora egin du Nafarroan azken hamarkada hauetan. Euskararen erabilerak ere gora egin du; ez, ordea, ezagutzaren neurri berean. Ezagutza eta erabilerak ez dira gauza bera. Erabilerak nekez egingo du aurrera zerbitzuen eskaintza zabaldu ezean, eta baldintza horrek, gizarte osoari bezala, Osasun Departamentuari ere bete-betean eragiten dio. Hizkuntza-ohiturak aldatzea, baina, ez da erraza.

Euskaraz jakinda ere, eta euskarazko titulazioa izanda ere, sarritan erdaraz erantzuten zaio paziente edo erabiltzaile euskaldunari. Zergatik? Arrazoi anitz egon litezke tartean, hala nola euskara-gaitasun nahikorik ez izatea, osasunari buruzko hiztegia ongi ez ezagutzea, ohiko elkarrizketak aurrera eramateko segurtasun falta, dokumenturen bat betetzerakoan okerren bat egiteko beldurra, lotsa, ohitura falta...

Gida honek gabezia horiek gainditzeko laguntza ematea du helburu; zalantzaren bat, galderaren bat edo hutsuneren bat dagoenean laguntza eskaintzea.

Zeladore-lanak egiten dituzten profesionalei zuzendutako liburuxka da.

Gida hau osatzeko, Osakidetza **Eremu asistentzialeko zeladoreak euskaraz** gida erabili da eta, beraz, bertan jasotzen diren egitura, testu eta adibide gehienak, gida horretatik hartuak izan dira. Elhuyar Aholkularitzak, Euskarabideak eta Osasun Departamentuak egin dituzte gidaren egokitzapenak.

# 1. INTRODUCCIÓN

Esta guía es un material elaborado en el marco del Plan Lingüístico del Departamento de Salud de Navarra, con el objetivo de facilitar el trabajo en euskera a los/las profesionales del Departamento.

El conocimiento del euskera en Navarra ha aumentado en las últimas décadas. El uso del euskera también ha aumentado, pero no en la misma medida que el conocimiento. El conocimiento y el uso no van unidos. El uso difícilmente avanzará si no se amplía la oferta de servicios, condición que afecta al conjunto de la sociedad y al Departamento de Salud. Cambiar los hábitos lingüísticos no es fácil.

Aun sabiendo euskera, incluso con titulación en euskera, muchas veces se atiende en castellano al paciente o usuario/a euskaldun. ¿Por qué? La falta de conocimiento de euskera, el desconocimiento del vocabulario de la salud, la inseguridad en la realización de las entrevistas habituales, el miedo a equivocarse en la cumplimentación de algún documento, la vergüenza, la falta de costumbre, etc. pueden estar presentes.

El objetivo de esta guía es ayudar a superar estas carencias, ofreciendo ayuda ante cualquier duda, consulta o fallo.

Se trata de un folleto dirigido a profesionales que realizan trabajos de celadores.

Para la elaboración de esta guía, se ha utilizado como base orientativa la **Guía de celadores en euskera del área asistencial** de Osakidetza, haciendo uso de parte de las estructuras, textos y ejemplos que aparecen en ella. Elhuyar Aholkularitza ha realizado las adaptaciones de la guía junto con Euskarabidea y el Departamento de Salud.

2



## 2. ELKARRIZKETAK

### 2.1. Kortesiazo adierazpenak

Datu pertsonalak eskatzeko
Izen-abizenak, mesedez. Zeintzuk dira zure izen-abizenak? Nola duzu izena?
Esan, mesedez, zure datuak: izen-abizenak, adina... Zure datuak emango dizkidazu, mesedez?
Zenbat urte dituzu? Noiztik bizi zara hemen? Noiztik bizi zara hemen?
Hona hemen datu pertsonalak eskatzeko fitxaren eredua:

#### DATU PERTSONALAK ESKATZEA

Izena Nombre	Abizenak Apellidos	Jaiotza-data Fecha de nacimiento	Jaioterria Lugar de nacimiento
Ane	Lizarribar Zubeldia	1980-12-20	Bera
Sexua Sexo	Telefonoa Teléfono	Telefono mugikorra Teléfono móvil	Faxa Fax
Gizonezkoa / Hombre Emakumezkoa / Mujer	948236 545	666 566 661	948 236 544
Posta elektronikoa Correo electrónico	Lanpostua Puesto de trabajo	Adina Edad	NANA DNI
a@euskaltel.com	Idazkaria	30	223344999
Kalea Calle	Zenbakia Número	Solairua Planta	Aldea Lado
Kale Nagusia	22	6.a	Eskuina
Posta kodea Código Postal	Herria Pueblo	Herrialdea Provincia	
22490	Iruñea	Nafarroa	

## 2. CONVERSACIONES

### 2.1. Expresiones de cortesía

Para solicitar datos personales
Nombre y apellidos, por favor. ¿Cuáles son tu nombre y apellidos? ¿Cómo te llamas?
Indícanos, por favor, tus datos: nombre, apellidos, edad... ¿Me das tus datos, por favor?
¿Cuántos años tienes? ¿Desde cuándo vives aquí?
El modelo de solicitud de datos personales es el siguiente:

#### SOLICITUD DE DATOS PERSONALES

## 2.2. Zeladoreen ekintza komunikatiborik ohikoenen

### AGURRA ETA LEHEN HITZAK PAZIENTEEKIN

Zeladoreak pazientea agurtu eta bere burua aurkeztu
Egun on (eguerdi on / arratsalde on). Edurne Busto zara? Ni Dani Lopez, zerbitzu honetako zeladorea.
Kaixo. Milagros Agirre andrea zara, ezta? Ni hemengo zeladorea naiz. Garbiñe dut izena.
Egun on (eguerdi on / arratsalde on). Nekane San Juan naiz. Zu mugitzen laguntzera nator.
Egun on (eguerdi on / arratsalde on). Karlos Ortega naiz, ospitaleko zeladorea. Zuk nola duzu izena?
Kaixo, Mari Asun, egun on (eguerdi on / arratsalde on). Josune Garzia naiz, zeladorea.
Egun on, Jose Angel. Euskaraz badakizu? Ni Julen Urrutia naiz, hemengo zeladorea.

Pazientearen identifikazioa egiaztatu
Barkatu, Miren, utzidazu zure eskumuturrekoa ikusten. Horrela, ederki.
Erakutsidazu, mesedez, identifikazio-eskumuturrekoa. Eskerrik asko.
Izena Luis duzula esan didazu. Eta abizena Bilbao, ezta?
Agirre duzu abizena, ezta?
Hernando Abaitua zara, ezta?

## 2.2. Ejemplos de acciones comunicativas más habituales en celadores

### SALUDO Y PRIMERAS PALABRAS CON LOS Y LAS PACIENTES

El celador saluda al paciente y se presenta
Buenos días (buenas tardes). ¿Eres Edurne Busto? Yo, Dani Lopez, celador de este servicio.
Hola. Eres doña Milagros Agirre, ¿verdad? Yo soy la celadora. Me llamo Garbiñe.
Buenos días (buenas tardes). Soy Nekane San Juan. Vengo a ayudarte a moverte.
Buenos días (buenas tardes). Soy Karlos Ortega, celador del hospital. ¿Tú cómo te llamas?
Hola, Mari Asun, buenos días (buenas tardes). Soy Josune Garzia, la celadora.
Buenos días, Jose Angel. ¿Sabes euskera? Yo soy Julen Urrutia, el celador.

Verificar la identificación del paciente
Disculpa, Miren, déjame ver tu pulsera. Así, estupendo.
Por favor, muéstrame la pulsera de identificación. Muchas gracias.
Me has dicho que tu nombre es Luis. Y tu apellido Bilbao, ¿verdad?
Te apellidas Agirre, ¿verdad?
Eres Hernando Abaitua, ¿verdad?



### Pazienteari haren egoeraren gaineko informazioa eskatu

Bakarrik zaude, Leire? Ez dago zure familiako inor hemen?

Bakarrik zaude? Familiakoei deitu diezu?

Nola etorri zara? Oinez?

Anbulantzian ekarri zaituzte?

Ongi al zaude? Ez zaude zorabiatuta, ezta?

Arnasa ongi hartzen duzu?

Besoa mugi dezakezu pixka bat?

Minik nabaritzen duzu oina lurrean jartzean?

Atzo ekarri zintuzten ospitalera?

### Solicitar información al paciente sobre su estado

¿Estás sola, Leire? ¿No hay nadie de tu familia aquí?

¿Estás sola? ¿Has llamado a tu familia?

¿Cómo has venido? ¿A pie?

¿Te han traído en ambulancia?

¿Estás bien? No estás mareada, ¿verdad?

¿Respiras bien?

¿Puedes mover un poco el brazo?

¿Notas dolor al apoyar el pie en el suelo?

¿Te trajeron ayer al hospital?

## PAZIENTEA OSPITALERATU

**Ospitaleratu aurretik, pazienteari azaldu**

Badakizunez, ospitaleratze programatua daukazu Kardiologia unitatean. Gurpil-aulkia ekarri dut, zu solairura eramateko. Onarpen paperak hartu ditut, eta kontrolean entregatuko ditugu solairura iritsi bezain agudo. Esan zure senarrari gauzak hartu eta gurekin etor dadila, mesedez.

Medikuak agindu bezala, orain daukazun hodi eta aparatuekin eraman behar zaitut Larrialdietatik ospitalizazio-gelara. Zure senideek dagoeneko badakite zer gelatara goazen. Eurek hartu dituzte zure gauzak, eta goian elkartuko zarete.

Psikiatria-unitatetik deitu digute, zu ospitaleratzeko prest daudela esanez. Gure zain daude. Etorri, mesedez, gurekin.

**Ospitaleratu aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu**

Marina Goiriren ahaideak (senideak) zarete? Esan digutenez, badirudi zuen amaxia ospitalean utziko dutela. Gela-zenbakia jakin bezain agudo, abisatu egingo dizuegu.

Alberto ospitalean uztea erabaki dute medikuek. Bosgarren solairuan geldituko da, Nefrologia-unitatean. Hemen ongi zainduta egongo da eta beharrezko proba guztiak egingo dizkiote.

Badakizunez, Neurologia-unitatean geldituko da ospitalizatuta, laugarren solairuan, 412. gelan. Hartu haren gauza guztiak eta igo itzazu gelara, mesedez.

Medikuak esan duenez, zuen aitaxia ospitalean gelditu behar da egun batzuetan. Digestio Aparatuaren unitatera eramango dugu, lehenengo solairuko 110. gelara. Hartu haren gauzak eta igo gelara, mesedez.

## HOSPITALIZACIÓN DEL PACIENTE

**Antes del ingreso, explicárselo al paciente**

Como sabes, tienes un ingreso programado en la unidad de cardiología. He traído una silla de ruedas para llevarte a la planta. He cogido los papeles de aceptación, los entregaremos en control en cuanto lleguemos a la planta. Dile a tu marido que coja las cosas y que nos acompañe, por favor.

Según prescripción médica, debo trasladarte desde Urgencias a la habitación de hospitalización con los tubos y aparatos que tienes actualmente. Tus familiares ya saben a qué habitación vamos. Ya han cogido tus cosas, os encontraréis arriba.

Desde la unidad de psiquiatría nos han llamado para decir que están listos para ingresarte. Nos están esperando. Acompáñanos, por favor.

**Antes del ingreso, explicárselo a la familia o a los amigos y amigos del paciente**

¿Sois familiares de Marina Goiri? Nos han dicho que vuestra abuela se quedará en el hospital. En cuanto sepamos el número de habitación, os avisaremos.

Los médicos han decidido ingresar a Alberto en el hospital. Permanecerá en la quinta planta, en la Unidad de Nefrología. Aquí estará bien cuidado y le realizarán todas las pruebas necesarias.

Como sabes, permanecerá ingresado en la Unidad de Nefrología, en la cuarta planta, en la habitación 412. Coge todas sus cosas y súbelas a la habitación, por favor.

Ha dicho la médica que vuestro abuelo tiene que permanecer unos días hospitalizado. Lo trasladaremos a la Unidad del Aparato Digestivo, a la habitación 110 de la primera planta. Coged sus pertenencias y subid a la habitación, por favor.



Larrialdietako pediatrek esan didate umea Jaioberrien Unitatera eraman behar dudala, zainketa berezietara. Gurasootako bat prest egon, mesedez, umea ohatilan ateratzen dudanean, nirekin etortzeko.

Mikel Psikiatriako solairuan ospitaleratzen duten bitartean, senideok atartean esperoan egon behar duzue. Amaitutakoan, osasun-langileak zuekin jarriko dira harremanetan.

Los pediatras de urgencias me han indicado que tengo que trasladar a la niña a la Unidad Neonatal, a cuidados especiales. Por favor, que uno de los padres esté preparado para venir conmigo cuando lleve a la niña en la camilla.

Mientras ingresan a Mikel en psiquiatría, debéis esperar en el vestíbulo. Al finalizar, el personal sanitario os avisará.

### Pazientea ospitalizazio-solairura eraman bitartean, haren egoeraz galdetu

Horrela ongi zoaz?

Zorabiaturik (al) zaude?

Komunera joan nahi duzu?

Pixka batean zurekin gelditzea nahi duzu?

### Durante el traslado del paciente a la planta de hospitalización, preguntarle por su estado

¿Así vas bien?

¿Te mareas?

¿Quieres ir al baño?

¿Quieres que me quede un poco contigo?

### Ospitalizazio-solairura iristean

Hauxe da Pneumologia-unitatea. Lehenengo dokumentazioa entregatuko dugu, eta gero gelara eramango zaitut. 302. gelan egongo zara, gogoratu. Hemen profesional-talde ona dago; ongi zainduko zaituzte.

Begira, Pedro, pasillo honetan hasten da Barne Medikuntzaren unitatea. Zu bukaerako gela batean egongo zara, 422an. Hemengo enplegatuek azalduko dizkizute solairuko arauak eta ordutegiak.

Bueno, Ana, ohean utziko zaitut. Orain etorriko da unitateko erizain bat zugana. Zure amak ere badaki zer gelatan zauden. Sendatu agudo. Adio.

Hemen dago Neonatologiako Zainketa Intentsiboen unitatea. Sartzeko, txirrina jo behar da beti. Orain umea sartuko dut nik, eta, bitartean, zuek gelditu itxarongelan. Segituan etorriko dira zuekin hitz egitera. Ea umea arin osatzen den, etxera itzultzeko. Agur.

### Al llegar a la planta de hospitalización

Esta es la unidad de Neumología. Primero entregaremos la documentación y luego te llevaré a la habitación. Estarás en la habitación 302, recuerda. Aquí hay un buen equipo de profesionales que te cuidarán bien.

Mira, Pedro, en este pasillo comienza la unidad de Medicina Interna. Tú estarás en una habitación del final, en la 422. El personal de aquí te explicará las normas y horarios de esta planta.

Bueno, Ana, te dejo en la cama. Ahora vendrá un enfermero de la unidad a verte. Tu madre también sabe en qué habitación estás. Cúrate pronto. Hasta luego.

Aquí se encuentra la Unidad de Cuidados Intensivos de Neonatología. Para entrar siempre hay que tocar el timbre. Ahora yo entraré con la niña; mientras tanto, quedaos en la sala de espera. Enseguida vendrán a hablar con vosotros. Espero que la niña se recupere pronto para volver a casa. Adiós.

**PAZIENTEA TARTEKO UNITATE BATERA ERAMAN EDO LAGUNDU: EBAKUNTZA-GELARA, PROBA OSAGARRIETARA, ERREHABILITAZIORA, KONTSULTARA...**

**TRASLADAR O ACOMPAÑAR AL PACIENTE A UNA UNIDAD INTERMEDIA: QUIRÓFANO, PRUEBAS COMPLEMENTARIAS, REHABILITACIÓN, CONSULTA...**

<b>Unitatera eraman aurretik, pazienteari azaldu</b>
Badakizunez, orain Larrialdietan gaude, eta Erradiologiara eraman behar zaitut, X Izpietara.
Erradiologia zerbitzura iristen garenean, itxarongelan utziko zaitut. Eta behin erradiografia egin eta gero, solairu honetara itzuliko gara, lehen ikusi zaituen medikuak berriz ere ikus zaitzan.
Orain alde kirurgikoraino lagunduko dizut, eta bertan itxarongelan egon beharko duzu, deitzen dizuten arte.
Maria, egon esperoan hemen pixka bat, mesedez. Lankide bat etorriko da zure bila berehala, eta berak eramango zaitu ebakuntza-gelara.
Errehabilitaziora eramango zaitut. Han ordubete inguruan jardun behar duzu fisioterapeuta batekin, zenbait ariketa egiten. Gero gelara ekarriko zaitut berriro.

<b>Antes de trasladarlo a la unidad, explicárselo al paciente</b>
Como sabes, ahora estamos en Emergencias y tengo que trasladarte a Radiología, a Rayos X.
Cuando lleguemos al servicio de radiología, te dejaré en la sala de espera. Y una vez realizada la radiografía volveremos a esta planta para que el médico que te ha visto antes te vuelva a ver.
Ahora te acompañaré hasta la zona quirúrgica, donde tendrás que permanecer en la sala de espera hasta que te llamen.
María, espera un poco aquí, por favor. Una compañera vendrá enseguida y te llevará al quirófono.
Te llevaré a rehabilitación. Allí tienes que estar alrededor de una hora con una fisioterapeuta realizando varios ejercicios. Luego te volveré a traer a la habitación.

<b>Unitatera eraman aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu</b>
Orain laugarren solairura eraman behar dut Jose Mari, erradiografia egitera. Nahi baduzue, bertako itxarongelan esperoan egon ahalko duzue.
Proba bat egitera eraman behar dut Nerea. Ordu erdi bat-edo izango da. Hirugarren solairuan egingo diotenez, hemen esperoan egon zaitezkete.
Guri oraintxe eramateko esan digute medikuek. Proba lehenbailehen egin nahi diote. Eurek esplikatuko dizuete gehiago.

<b>Antes de trasladarlo a la unidad, explicárselo a la familia o a los amigos y amigas del paciente</b>
Ahora tengo que llevar a Jose Mari a la cuarta planta para hacerle la radiografía. Si queréis, podéis esperar en la sala de espera de la planta.
Tengo que llevar a Nerea a hacer una prueba. Tardará media hora, más o menos. Como se la harán en la tercera planta, podéis esperar aquí.
Los médicos nos han dicho que la llevemos ahora mismo. Quieren hacerle la prueba lo antes posible. Ellos os darán más detalles.

Medikuak esan duenez, ez da oso larria, baina operazioa egin behar diote. Egon zaitzete lasai.

Nik ez dakit zer duen. Medikuak ikusi du eta segituan emango dizkizue azalpenak.

Barka ezazue, Alfredoren errehabilitazio-ordua da orain. Errehabilitazio-gelara eramanez behar du. Ordubete edo esperoan egon behar duzue hemen, berarekin ezin baita inor sartu. Gero, nik ekarriko dut berriz hona.

Según ha dicho la médica, no es muy grave, pero tienen que operarle. No os preocupéis.

Yo no sé qué le pasa. Le ha visto la médica y en breve os lo explicará.

Perdonad, es la hora de rehabilitación de Alfredo. Tengo que llevarlo a la sala de rehabilitación. Tendréis que esperar aquí alrededor de una hora, porque no puede entrar nadie con él. Luego yo lo traeré de vuelta.

### Pazienteari mugitzeko instrukzioak eman

Ohatilara pasako zaitugu, eta zure laguntza behar dugu. "Bat, bi eta hiru" esandakoan, altxa ipurdia. Ados?

Orain zutitu egin behar zara. Erlaxatu gorputza, mesedez. Besoetatik hartuko zaitut, laguntzeko. Esaten dizudanean, egin indar pixka bat eta nik altxatuko zaitut.

Orain, mugitzen lagunduko dizut. Pasatu besoak nire buruaren atzetik eta atxiki ongi lepoari.

Jar zaitzete tenteago, ahalik eta zuzenen.

Horko eserlekura eramango zaitut, atseden pixka bat har dezazun. Jiratu pixka bat oina ezkerretarantz.

Lasai, gelditu hemen eta hartu behar duzun denbora; ez dugu presarik. Prest zaudenean, jarraitu egingo dugu.

### Dar instrucciones al paciente para moverlo

Te pasaremos a la camilla, necesitamos que nos ayudes. Cuando diga "Uno, dos y tres", levántate. ¿De acuerdo?

Ahora tienes que ponerte de pie. Por favor, relaja el cuerpo. Te cogeré de los brazos para ayudarte. Cuando yo te diga, haz un poco de fuerza y yo te levanto.

Ahora te ayudaré a moverte. Pasa tus brazos por detrás de mi cabeza y agárrate bien a mi cuello.

Enderézate más, lo más recto posible.

Te llevaré a ese asiento para que descanses un poco. Gira el pie un poco hacia la izquierda.

Tranquila, quédate aquí y tómate el tiempo que necesites; no tenemos prisa. Cuando estés lista, seguiremos.

### Pazientea animatu

Aupa! Oso ongi ari zara eta!

Primeran! Pixka bat gehiago eta listo!

Eutsi pixka bat, iritsi gara eta.

Bapo! Lehengo egunetik gaur arte aitzinera egin duzu ederki!

Animo, gaur eguraldi ona dugu eta!

### Animar al paciente

¡Ánimo! ¡Lo estás haciendo muy bien!

¡Genial! ¡Un poco más y listo!

Aguanta un poco, ya hemos llegado.

¡Bravo! ¡Desde el primer día hasta hoy has avanzado mucho!

¡Ánimo, hoy tenemos buen tiempo!

<b>Pazientea lasaitu</b>
Gurpil-aulkian eseriko zaitut. Zu egon lasai, eta egizu nik esaten dizudana, arren. Ikusiko duzu zer eroso joango zaren.
Lasai, nik lagunduko dizut, ez zara eroriko.
Ibili poliki-poliki. Besotik atxikiko dizut, eror ez zaitezen.
Etzan zaitetz ohatilan eta ez tolestu hanka. Saiatu erlaxatzen.
Atxiki ongi makuluei eta goazen poliki-poliki. Zuk markatu erritmoa.
Laguntzen baduzu, hobeto egingo dugu eta arinago amaituko.
Trankil, nik esango dizut mugimenduak nola egin. Ez dizu minik egingo.
Ez egin indarririk, utzi guri mugitzen. Ez duzu minik izango, ikusiko duzu.
Hanken gainean ez jarri ezer ez, mesedez, eroso joateko eta minik ez izateko. Nik eskatuko diot zure emazteari gauzak hartu eta eraman ditzan.

<b>Pazienteari haren egoeraz galdetu</b>
Ongi zaude?
Minik baduzu?
Horrela, eroso zoaz?
Gurpil-aulki bat ekarriko dizut hobeto joateko?
Geldialdi bat egingo dugu atseden hartzeko?
Nekerik edo zorabiorik nabaritzen baduzu, esan, eta gurpil-aulkia ekarriko dizut.

<b>Tranquilizar al paciente</b>
Te sentaré en la silla de ruedas. Estate tranquilo y haz lo que yo te diga, por favor. Verás qué cómodo vas a ir.
Tranquilo, yo te ayudaré, no te caerás.
Camina lentamente. Te agarraré del brazo para que no te caigas.
Túmbate en la camilla y no flexiones la pierna. Intenta relajarte.
Agárrate a las muletas y vamos poco a poco. Tú marcas el ritmo.
Si colaboras lo haremos mejor y terminaremos antes.
Tranquila, yo te diré cómo hacer los movimientos. No te haré daño.
No hagas fuerza, deja que te movamos. No te dolerá, ya verás.
No coloques nada sobre las piernas, por favor, para ir cómodo y que no te duela. Yo le pediré a tu mujer que coja las cosas y las lleve.

<b>Preguntar al paciente sobre su estado</b>
¿Estás bien?
¿Te duele?
Así, ¿estás cómoda/o?
¿Te traigo una silla de ruedas para ir mejor?
¿Haremos una pausa para descansar?
Si te cansas o te mareas avísame y te traeré una silla de ruedas.

**PAZIENTEAREKIN TARTEKO UNITATEAN:  
EBAKUNTZA-GELAN, PROBA  
OSAGARRIETAN, ERREHABILITAZIOAN,  
KONTSULTAN...**

<b>Unitatean, pazienteari lehen azalpenak eman</b>
Operazio-gelan zaude. Hemen etzan behar duzu, ahoz gora. Egon lasai, medikua heldu da eta ebakuntzari buruzko azalpenak emango dizkizu.
Sabin Telleria, zatoz nirekin, mesedez. Horko gelan egingo dizute erresonantzia. Nik lagunduko dizut.
Dokumentazioa entregatu dut, eta segituan deituko dizute. Ni egongo naiz zurekin, egon lasai.
Orain itxarongelan egon behar dugu zure izena esan arte.
Esperoan egon aulki honetan. Segituan deituko dizute.
Orain, ebakuntza egiteko prestatuko zaituzte. Egon lasai. Zer edo zer behar baduzu, eskatu arazorik gabe.

<b>Unitatean, pazienteari instrukzioak eman</b>
Eseri ohatilan eta askatu alkandora.
Erantzi oinetakoak, mesedez.
Jaso jertsearen mauka, mesedez.
Erantzi gerritik gorako arropa eta etzan ahoz gora ohatilan. Medikua heldu da eta zurekin solastuko da.
Mesedez, etzan zaitetz hemen, ahoz behera.
Jiratu pixka bat burua eta jarri kokotsa hemen.
Utzi gauza guztiak erretilu honetan. Telefonoa piztuta baldin badaukazu, itzali, mesedez.
Komunera joan behar baduzu, esan orain, eta lagundu egingo dizut.

**CON EL PACIENTE EN LA UNIDAD  
INTERMEDIA: QUIRÓFANO, PRUEBAS  
COMPLEMENTARIAS, REHABILITACIÓN,  
CONSULTA...**

<b>En la unidad, dar las primeras explicaciones al paciente</b>
Estás en el quirófano. Tienes que tumbarte aquí, boca arriba. Mantén la calma, ahora llegará la médica y te dará explicaciones sobre la operación.
Sabin Telleria, ven conmigo, por favor. Te harán la resonancia en esa sala de ahí. Yo te ayudo.
He entregado la documentación y te llamarán enseguida. Yo estaré contigo, no te preocupes.
Ahora tenemos que permanecer en la sala de espera hasta que digan tu nombre.
Espera en esta silla. Te llamarán enseguida.
Ahora, te prepararán para la operación. Estate tranquila/o. Si necesitas algo, pídelo sin problemas.

<b>En la unidad, dar instrucciones al paciente</b>
Siéntate en la camilla y suéltate la camisa.
Por favor, quítate los zapatos.
Recógete la manga del jersey, por favor.
Quítate la ropa de cintura para arriba y tumbate en la camilla boca arriba. Ahora vendrá el médico y hablará contigo.
Por favor, tumbate aquí, boca abajo.
Gira un poco la cabeza y pon aquí la barbilla.
Deja todas tus cosas en esta bandeja. Si tienes el teléfono encendido, apágalo, por favor.
Si tienes que ir al baño, dímelo ahora y te ayudaré.

**Unitatean, pazientea lasaitu eta animatu**

Ez larritu, dena ongi aterako da eta.

Azkar egingo dizute proba. Erraza da eta ez du minik egiten, ikusiko duzu.

Ebakuntza-gelan sartuko gara. Lasai egon, dena ongi joango da eta.

Barruan zaudela, egin kasu bertako profesionaleri, eta dena ongi irtengo da.

Ebakuntza egingo dizun zirujaua oso ona da. Izan konfiantza.

Proba hau jende anitzek egin du. Ikusiko duzu gero zer ongi.

**En la unidad, tranquilizar y animar al paciente**

No te preocupes, todo saldrá bien.

Te harán la prueba en un momento. Es fácil y no hace daño, ya verás.

Entraremos en el quirófano. Mantén la calma, todo irá bien.

Cuando estés dentro, haz caso a los profesionales y todo saldrá bien.

La cirujana que te va a intervenir es muy buena. Confía.

Esta prueba la ha hecho mucha gente. Ya verás qué bien luego.

**Unitatean, pazientearen ahaleginak eskertu**

Oso ongi ari zara, Mikel, ederki!

Eutsi Ane, eutsi, segituan amaituko da eta!

Horrela, horrela! Primeran!

Hobetzen ari zara ederki!

Egunetik egunera hobeto zabilta!

Zer? Dena ongi joan da, ezta? Orain medikuari kasu egin eta ikusiko duzu zer azkar sendatuko zaren.

**En la unidad, agradecer los esfuerzos del paciente**

¡Lo estás haciendo muy bien, Mikel, genial!

¡Aguanta, Ane, aguanta que enseguida terminamos!

¡Así, así! ¡Genial!

¡Estás mejorando mucho!

¡Cada día vas mejor!

¿Qué? Todo ha ido bien, ¿verdad?  
Ahora atiende al médico y ya verás qué pronto te curas.



### Unitatean, pazientearen senide edo lagunei azalpenak eman

Ane Loidiren semea zara? Oraindik ez dute bukatu, egon lasai. Bukatzen dutenean deituko dizute

Proba egiten amaitzen dutenean, dena esplikatuko dizute. Lasai hartu.

Ni zeladorea naiz eta ez daukat informaziorik. Medikuek segituan esango dizute zerbait. Oso ongi ulertzen dut zuen egoera, baina pazientzia pixka bat izan, mesedez.

Orain esperoan egon behar duzue; nik ez dakit ezer.

Barkatu, ni ez naiz medikua; ezin dizuet horrelako informaziorik eman. Gero solastuko zarete medikuarekin.

Proba egin eta gero, medikuarekin solasteko aukera izango duzue, baina, segur aski, emaitzak ikusi arte ezingo dute ezer baieztatu.

Luis Lopategiren ahaideak zarete? Zatozte nirekin, mesedez.

Operazioa amaitu da eta bizkortze-gelara eraman behar dugu Markel. Medikua heldu da nola dagoen esplikatzera.

Miren Txoperenaren alaba zara? Proba bukatuta dago. Esperoan egon pixka batean hemen; orain aterako da medikua zurekin solastera.

### En la unidad, dar explicaciones a la familia o a los amigos y amigos del paciente

¿Eres hijo de Ane Loidi? Todavía no han terminado, estate tranquilo. Cuando terminen te llamarán.

Cuando terminen de hacer la prueba os lo explicarán todo. Estad tranquilos.

Yo soy la celadora y no tengo información. Los médicos os dirán algo enseguida. Entiendo muy bien vuestra situación, pero tened un poco de paciencia, por favor.

Ahora tenéis que esperar; yo no sé nada.

Lo siento, yo no soy médico; no os puedo dar esa información. Después hablaréis con la médica.

Una vez realizada la prueba podréis hablar con el médico, pero seguramente no podrán confirmar nada hasta que no tengan los resultados.

¿Sois familiares de Luis Lopategi? Venid conmigo, por favor.

La operación ha terminado y tenemos que llevar a Markel a la sala de reanimación. Ahora viene el médico a explicaros cómo está.

¿Eres la hija de Miren Txoperena? La prueba ha terminado. Espera un poco aquí; ahora viene la médica a hablar contigo.

## PAZIENTEAREKIN TARTEKO UNITATETIK HASIERAKO UNITATERA ITZULI

### Hasierako unitatera itzuli aurretik, pazienteari azaldu

Orain lehengo unitatera eramango zaitut, Agirre doktoreak berriz ikus zaitzan.

Orain Larrialdietako itxarongelan utziko zaitut. Han daude zure senideak, eta segituan deituko dizu berriro medikuak.

Orain, ebakuntza egin ondoren, zure gelara joango gara berriz. Medikua bihar goizean pasako da eta beharrezko azalpen guztiak emango dizkizu.

### Hasierako unitatera itzuli aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu

Behin proba guztiak eginda, lehengo unitatera eramango dut Josune, Galparsoro doktoreak berriz ikus dezan. Hemen esperoan egon zaitzekete edo gurekin etorri.

Josune Herreraren seme-alabak? Badakizuenez, zuen amari kolonoskopia egin diote eta segituan ospitalizazio gelara eraman behar dut berriro. Baten batek hemen itxaroten baduzue, medikuarekin solasteko aukera izango duzue.

## VOLVER CON EL PACIENTE DE LA UNIDAD INTERMEDIA A LA UNIDAD INICIAL

### Antes de volver a la unidad inicial, explicárselo al paciente

Ahora te llevaré a la unidad inicial para que te vuelva a ver la doctora Agirre.

Ahora te dejaré en la sala de espera de Urgencias. Ahí están tus familiares, y enseguida te volverá a llamar la médica.

Ahora, después de la operación, volveremos a tu habitación. El médico pasará mañana por la mañana y te dará todas las explicaciones necesarias.

### Antes de volver a la unidad inicial, explicárselo a la familia o a los amigos y amigas del paciente

Una vez realizadas todas las pruebas, llevaré a Josune a la unidad inicial, para que la vuelva a ver el doctor Galparsoro. Podéis esperar aquí o venir con nosotras

¿Sois los hijos de Josune Herrera? Como sabéis, a vuestra madre le han hecho una colonoscopia y enseguida tengo que trasladarla de vuelta a la habitación de hospitalización. Si alguien espera aquí, podréis hablar con la médica.



### Osasun-profesionalen gomendioak betetzeko esan

Azkarrago osatzeko, egizu ongi medikuak esan dizun guztia.

Medikuak ordu batzuetan etzanda egoteko eskatu badizu, ez jaiki. Posizioz aldatu nahi baduzu, jo ezazu txirrina eta laguntzera etorriko gara.

Medikuak bihar arte ezer ez jateko esan badizu, egiozu kasu, gose izan arren.

Medikazioa erizainak agindu dizun moduan hartu behar duzu; oso garrantzitsua da.

### Decirle que siga las recomendaciones del personal sanitario

Para que te recuperes antes, haz todo lo que te ha dicho el médico.

Si la médica te ha dicho que estés tumbada durante unas horas, no te levantes. Si quieres cambiar de posición, toca el timbre y vendremos a ayudarte.

Si la médica te ha dicho que no comas nada hasta mañana, hazle caso, aunque tengas hambre.

Tienes que tomar la medicación como te ha dicho el enfermero; es muy importante.

### Hasierako unitatera itzulita, pazientea eta senideak agurtu

Bueno, ebakuntza egin dizute eta gaur gela honetan gelditu behar duzu. Ongi kontrolatuta egongo zara. Egizu ongi lo, eta ea azkar sendatzen zaren. Bihar arte.

Orain Larrialdietako itxarongelan egon behar duzue, anbulantzia etorri eta aitona etxera eramán arte. Ea agudo sendatzen den. Agur.

### Después de regresar a la unidad, despedirse del paciente y familiares

Bueno, te han operado y hoy tienes que quedarte en esta habitación. Estarás bien controlado. Duerme bien, a ver si te curas cuanto antes. Hasta mañana.

Ahora tenéis que permanecer en la sala de espera de Urgencias hasta que llegue la ambulancia para llevar al abuelo a casa. Espero que se cure pronto. Adiós.

## OSPITALIZATUTAKO PAZIENTEEI POSIZIOZ ALDATZEN LAGUNDU

### Posizioz aldatu aurretik, pazienteari azaldu

Egun on (arratsalde on), Antonio. Posizioz aldatzea komeni zaizula esan digu erizainak. Zu laguntzera etorri gara. Egun lasai, dena guk egingo dugu, eta ez duzu minik izango.

Kaixo, Rosa. Txirrina jo duzu etzaneraz aldatzera etor gaitezen, ezta? Ongi da. Esan nola jarri nahi duzun.

Kaixo, Miguel. Zer nahi duzu? Ohetik aulkira pasatzea? Ederki, nik lagunduko dizut kontu handiz.

### Posizioz aldatu aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu

Egun on (arratsalde on), zuen ama posizioz aldatzera gatoz. Axola ez bazaizue, atera pasillora pixka bat, mesedez. Pazientea mugitzen dugunean deituko dizuegu.

Lehenengo egunotan, ez utzi Pedro Mariri bakarrik zutitzen eta ohetik aulkira pasatzen, badaezpada. Medikiak esan du hanka geldi-geldi eduki behar duela egun batzuetan. Aulkian eseri nahi duenean, deitu guri, eta berehala etorriko gara laguntzera.

## AYUDAR A LOS PACIENTES HOSPITALIZADOS A CAMBIAR DE POSICIÓN

### Antes de cambiar de posición, explicárselo al paciente

Buenos días (buenas tardes), Antonio. La enfermera nos ha dicho que te conviene cambiar de posición. Hemos venido a ayudarte. Estate tranquilo, lo haremos todo nosotros, no te dolerá.

Hola, Rosa. Has tocado el timbre para que vengamos a cambiarte de posición, ¿verdad? Está bien. Dinos cómo quieres que te coloquemos.

Hola, Miguel. ¿Qué quieres? ¿Pasar de la cama a la silla? Muy bien, yo te ayudo, con mucho cuidado.

### Antes de cambiar de posición, explicárselo a la familia o a los amigos y amigas del paciente

